



Udal agiria ATAUN

ABERRI EGUNA 2019

2019. urtean ez da Ataunen Aberri Egunaren ekitaldirik ospatuko, ataundar herritarrei Euskal herri mailan egingo diren ekitaldi desberdinetan parte hartzeko gonbitea zabaldu nahian. Hala ere, nahiz eta ekitaldia ez antolatu, Aberri Eguna ospatzeko deiarekin bat eginez, ataundarron etxeetan ikurrina jartzeko gonbitea egin zaizue.

HAURRESKOLAKO MATRIKULAZIOA

Familia agurgarria:

Datorren ikasturteari begira, zuen seme-alabak Ataungo Haurreskolan matrikulatzera animatu nahi zaituztegu. Bertan, 0-2 urte bitarteko haurrentzat kalitatezko hezkuntza eskaintzen da.

Matrikulazio epea laster zabalduko da: **maiatzaren 2tik maiatzaren 10era**. Informazio gehiago nahi izanez gero haurreskolatik pasa, telefonoz deitu 943 180376 zenbakira, edo e-mail bitartez galdetu ataun.ataun@haurreskolak.eus helbidean. Haurreskolako instalazioak ezagutu nahi badituzue lasai hurbildu antolatu dituzten **ate irekietara**. Hauexek izango dira **ate irekien** egunak eta ordutegia:

- Maiatzaren 2an, 13:30etatik 14:30etara.
16:00tatik 17:00etara.
- Maiatzaren 7an, 13:30etatik 14:30etara.
16:00tatik 17:00etara.

Ataunen, 2019ko apirilaren 15ean
ALKATEA,

